

**EBAZPENA, 2016ko martxoaren 29koa, Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkarirena, Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan goi mailako teknikari/arduradun instituzional baten postua betetzeko hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratzen eta lanpostua esleitzen duena**

Estatu Batuetako Euskadiren Ordezkariren 2015eko abenduaren 10eko Ebazpenaren bidez, goi mailako teknikari/arduradun instituzional baten postu bat betetzeko hautaketa-prozesurako deialdia egin zen, Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzaren zerbitzura jarduteko.

Ebazpenaren eranskinean jasota dauden oinarri-arauen 7.3 atalean aurreikusten den legez, 2016ko martxoaren 15ean, Epaimahai Kalifikatzaileak prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrenda egin du, hautaketa-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera antolatuta. Beraz, egoki da zerrenda hori eta behin betiko aukeratutako hautagaiaren izena plazaratzea. Ebazpenaren eranskinean jasota dauden oinarri-arauen 6.1 atalean ezarritakoari jarraituz, izangai bakoitzari zenbaki bat eman zaio bere pribatutasuna bermatzeko. Oinarri-arauen 7.3 atalean ezarritakoaren arabera, lanpostuaren esleipendunaren berariazko baimena behar da bere izena prozesuaren azken ebazpenean argitaratzeko.

Horiek horrela, eta oinarri-arauen 7.3 atalean ezarritakoari jarraituz, hauxe

#### **EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.-** Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan goi mailako teknikari/arduradun instituzional baten postua betetzeko hautaketa-prozesua gainditu duten pertsonen behin betiko zerrenda argitaratzea. Hona hemen zerrenda:

1. Hiru zenbakia jaso duen pertsona

**Bigarrena.-** Beraz, hiru zenbakia jaso duen pertsonari esleitzea lanpostua, hau da, Felipe Victoria-ri. Pertsona horrek berariazko baimena eman du ebazpen honetan bere izena argitaratzeko.

**Hirugarrena.-** Esleitutako pertsonari egutegiko hamabost (15) eguneko epea ematea, eskatutako eta alegatutako eskakizunak betetzen dituela egiaztatzeko eskatzen zaizkion jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak



aurkez ditzan. Hamabost (15) eguneko epea hasiko da kontatzen aurkeztu beharreko dokumentazioa zehazten duen eskaera egokia jakinarazten den egunaren biharamunetik.

**Laugarrena.-** Ebazpen honek ez du administrazio bidea agortzen eta bere aurka gorako errekurtoa jarri ahal izango da Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

<http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/kanpo-harremanak-lan-eskaintza>

ANDER CABALLERO BARTREN  
Euskadiren Ordezkaria Estatu Batuetan